



Urde bat laster
etxekotua da
ezkurzak badiren
toki guzitean ■

(Fenelon)

2010eko Apirilaren 15ekoa - 15 avril 2010 - 1,15 € - N° 3052 - ISSN 0767-7643

EUSKAL ASTEKARIA / HEBDOMADAIRE BASQUE

Uharte Garazi

Haiti-ren sustenguz - «Konbit pour Haiti» elkarte berriki sortu da. Herrian bizi den Sandra Dessalines-Zozaya haitiarra du lehendakari. Elkarte honen helburua da Haitiren alderako garapen ekintzak muntatzea, herrialde hori ber-eraikitzen laguntzeko. Hiru proiektu dauzka mementoko : haurren eskolatzea lagundu, gozaita eta gozama batzuen bidez ; esnetegi ttipi batzu lagundu, behi zenbaiten erosteko bidea errentuz ; haragitegi baten eraikuntza...

Hori guzia aipatzeko, gauraldi berezi bat antolatzen du elkarte berriak Donibane Garaziko Vauban zinegelan, apirilaren 22an, ortzegunez (20:30) : proiektu horien dokumentalak erakutsiak izanen dira, filmegilea hor izanen delarik galdeeri ihardesteko. Jendea saldoan igurikatua da.